

Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data

Hasiera batean pasa den asteazkenean egitekoa bazen ere, **urriaren 2ra** atzeratu zen ikasturte honetako Artezkaritza-Kontseiluaren lehenengo bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinaraz dezakezue.



Ikasketa-beka

Astlehenean amaituko da 2024/25 ikasturterako Eusko Jaurlaritzak bideratzen duen beka eskatzeko epea.

Informazio guztia [hemen klikatuta](#) ikus dezakezue. Edozein zalantza argitzeko edo argibide gehiagorako idazkaritzarekin jarri harremanetan.

Era berean, Udarregi Ikastolak, irakaskuntzaren finantzazioari laguntzeko asmoz, **beka-sistema propioa** eskainiko die bere bazkideei. Beka-sistemaren baldintzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta diru-laguntzaren zenbatekoaren inguruko xehetasunak [hemen klikatuz](#) irakur daitezke. Beka eskaera idazkaritzan aurkeztu behar da, epea irailaren 30era arte irekita egongo da.



Jangela-zerbitzua

❖ Menuak

Bazkaldarrek urrian izango duten menua honakoa izango da:

[Urriko menua](#)

[Urriko menu bereziak](#)

❖ Alergiak

Alergia berriak dituzten ikasleen gurasoek, sendagilearen txostena helarazi behar diote haurraren tutoreari. Aurrez helarazitako kasuetan, ez dago berriro ekarri beharrik.

❖ Jangelatik ateratzeko gurasoen baimena

Jangelan bazkaltzen duten ikasleak jangela orduan ikastolatik ateratzeko, [baimen orri hau](#) sinatu behar dute gurasoek. Baimen-orria, haurraren bitartez tutoreari helarazi behar zaio.



Alergiak

Alergia berriak dituzten ikasleen gurasoek, sendagilearen txostena helarazi behar diote haurraren tutoreari. Aurrez helarazitako kasuetan, ez dago berriro ekarri beharrik.



Egutegia

Gogorarazten da, datorren astelehenean, irailak 30, **HH, LH eta DBH-ko klaseak goiz eta arratsaldez** hasiko direla. HH eta LH-ko ikasleak 9:00 – 12:30 eta 14:30 – 16:30 eta DBH-koak 8:25 - 12:30 eta 14:30 - 16:30 ordutegian.



Kilometroak 2024

Urriaren 6an Azpeitian ospatuko da aurtengo Kilometroak festa. Azpeitiako Ikasberri ikastolari dagokio antolatzea. Informazio gehiago, kilometroak.eus webgunean. Animatu! Giro ederra izango da eta!



Eskola-kirola

Eskola-kiroleko **Zirimara familian** (0-5 urte), **Zirimara** (LH 1-6) eta **esku pelota** eskaintzak, **urriaren 1etik aurrera** hasiko dira.



Baso-eskola

Iaz bezala, aurten ere baso-eskolaz gozaten jarraituko dugu, baina eremua prestatzeko gurasoen laguntza behar dugu. Beraz, auzolanerako deialdia egin nahi dugu **bihar larunbatarako, goizeko 9:00etan Mahaspildegiko aparkalekuan** bilduko gara.

Egin beharreko lanak honakoak dira:

- Erreka arroa garbitu.
- Bertan dauden kainaberak pilatu.
- Zaborra bildu.
- Erreka zeharkatzeko zubia berreraiki.

Lanerako beharko ditugun erremintak:

- Eskularruak
- Aitzurrak eta palak
- Zakarrak biltzeko ontziak
- Orgak (karretillak)
- Motozerra

Aurrez, parte hartzera animatzen zaretenoi gure eskertza adierazi nahi dizuegu ikastolatik.



HAUR-HEZKUNTZA

Haur Eskolako tasen informazioa

Haur-Eskola zerbitzua udal zerbitzua denez, Udala izango da dagokion tasa kobratuko duena; 60 € egun osoa eta 40 € egun erdia.

Aldiz, bazkari eta merienda zerbitzuak ikastolak kobratuko ditu; 117 €/hilean otorduagatik eta 20 €/hilean meriendagatik. Kobrantza, zerbitzuaren erabileraren hurrengo hilabetean egingo da.



HHko guraso-bilerak

Datorren astean bilera orokorrak egingo ditugula gogorarazi nahi dizuegu:

- o **HH 4:** Irailaren 30ean
- o **HH 5:** Urriaren 1ean

Bilerak, haurren geletan egingo ditugu, **16:45ean**. Bilerak euskaraz egingo dira. Inork itzulpenik beharko balu, TELEGRAM aplikazioa instalatuta ekarri beharko du mugikorrean, aurikularrekin batera.

Zaintza zerbitzua egongo da.



Baso-eskola

Lehenengo saioak **urriaren 2an (HH 5 urtekoak)** eta **urriaren 3an (HH 4 urtekoak)** egingo ditugu.

HH 4koak OSTEGUN goizetan joango dira.

HH 5ekoak ASTEAZKEN goizetan joango dira.

Edozein zalantza izanez gero, galdetu lasai!!



LEHEN HEZKUNTZA

LH 2: igeriketa sustapenerako plana

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako programa baten barruan kokatzen da "Igeriketa-plana". Udarregi ikastolak, haurrengan izan ditzakeen onurak kontuan hartuta, LH 2. mailan txertatzea erabaki du.

Honela bada, **irailaren 30etik urriaren 18ra** (biak barne) igeriketa-ikastaroa egingo dute LH 2ko ikasleek. [Hemen](#) argibide guztiak.



DBH

Guraso-bilerak DBH

Bilera orokorretarako datak gogorarazi nahi dizkizuegu:

- o **DBH 1:** urriaren 1ean
- o **DBH 2:** urriaren 2an
- o **DBH 3:** irailaren 30ean
- o **DBH 4:** urriaren 3an



Bilerak, **ikasleen geletan** egingo ditugu, **17:00etan**.

Txostenak Alexia bidez bidaliko dira.